

GIL 60 Olazko poljea



Olazko poljearen ikuspegi panoramikoa.

Kokapena

- **Koordenatu geografikoak:**

Lat.: 43° 17' 17,56 ''

Long.: 2° 24' 28,10''

- **UTM koordenatuak:**

X: 548.042,61 m

Y: 4.792.991,13 m



Nola iritsi

N-634 errepidetik. Kostako lerroarekiko paralelo dago errepidea, eta Mutriku eta Ondarroa lotzen ditu. Gutxi gorabehera Mutrikuko herrigunetik kilometro-erdira, saihesbide bat dago ezkerretara, Olatz auzora doana GI-3562 eskualde-errepidean zehar; hain zuzen, han amaitzen da, 3 bat kilometroren ondoren.

GILaren deskribapen laburra

Arroka-substratuan arrezife-kareharri urgondarrak dira nagusi, ingurune horretan ohikoa den moduan, eta substratu horrek bide eman du azaleko urak zenbait hobitan barrena infiltra daitezten; hala, ur-fluxu handiak sortu dira lurpean, eta zenbait barrunbe, haitzulo eta leize eratu dira. San Isidro ermitatik oso gertu, Kobalde izeneko eremuan, sakonunearen punturik baxuenean, hobi bat dago, eta haren bidez infiltratzen dira inguruko azaleko urak substratuan (Añu, Olazgoiko... erretenak).

Olazko sakonunea, edo haran endorreikoa, Arnoko mendigune karstikoan dago, eta NE-SW norabideko faila baten aldera eratu da. Sakonune horrek 6 bat km²-ko arro bat drainatzen du; hots, mendigunearen azaleraren % 37. Kobaldeko hobiak 45 m-ko desnibela du, eta 575 m garapena duen koba bati bide ematen dio —mendiguneko handiena da—. Poljeko zona baxu honetan, Kuaternarioko materialek gutxi gorabehera 1 km²-ko eremu bat estaltzen dute.

Sakonuneak beste dolina txiki batzuk biltzen ditu, eta haietan badira beste koba hobi batzuk. Halakoa da Kobeta: 100 m-ko desnibela du, eta 500 m-ko garapena, eta lurpeko ibai bat du barnean. Bi barrunbeen ahoak hidrogeologikoki aktiboak dira prezipitazio handiko garaietan. Pixka bat iparralderago, Mendibeltzburu inguruan, beste dolina bat dago, 0,5 km² ingurukoa.

1975ean trazadura-saiakuntza bat egin zen (Hernanz, 1975); Kobetan, 2,5 kg fluoreszeina injektatu ziren. Trazatzailea hiru iturburutatik atera zen, hirurak Deba ibaiaren ezkerreko ertzean: Itxurisarra (2.900 m-ko distantzia lerro zuzenean), Leiarteko iturria (3.400 m-ko distantzia) eta Xoxuhaizko iturria (3.300 m-ko distantzia). Emaitzek agerian uzten dute ur gehienak azkar zirkulatzen duela goialdeko hobietan zehar; han aprobeztatzen da, eta hodi horiek ez dira iristen akuiferoaren erreserbetara. Beste parte bat akuiferoaren erreserbetan sartzen da, pitzadura txikiagoetatik pasatuz eta askoz mantsiago zirkulatuz.

Itxurisarrako iturburua Astigarribia auzotik 300 bat m hegoaldera dago, 4 m-ko kotan. Ibaiaren mailan irteten da, eta ez dago haren emariaren daturik.

Leiarteko iturria Sasiolako zubitik hurbil dago, 6 m inguruko kotan. Ura arrezifeetako kareharri eta tuparriei eragiten dien haustura batetik ateratzen da. Batez besteko emaria 15 l/s inguru da.

Xoxuhaizko iturria arrezifeetako kareharrietan dago, 2 m-ko kotan, eta 20-40 l/s-ko emaria du, batez beste. Agorraldi luzeetan, lehortu egiten da; garai euritsuetan, berriz, 100 l/s baino gehiago ematen du. Itsasgoran, urpean geratzen da.

Behatzeko punturik onena

Olatzera doan errepidetik.

Erlazionatutako GILak

- **Geografikoki:** GIL 23, GIL 25, GIL 63, GIL 119.
- **Gaiari dagokionez:** GIL 57, GIL 58, GIL 62, GIL 63.

GIL-aren balorazioa

Balorazioa		Baxua	Ertaina	Altua	Oso altua
Interes zientifikoa	Geomorfologikoa			●	
	Hidrogeologikoa			●	
	Tektoniko/Estrukturala	●			
	Estratigrafikoa				
	Paleontologikoa				
	Petrologikoa				
	Mineral-hobiak				
	Beste batzuk				
Interes ekonomikoa (erauzketa)			Iraganean	Potentziala	Martxan
Interes kulturala:					
Oharrak:	EAEko poljerik argienetako bat da, eta ongien kontserbatu direnetako bat.				

Bibliografia espezifikoa

- Hernanz, A. (1975). *Estudio hidrogeológico de los alrededores de Deva, Guipúzcoa*. Euroestudios, S. A. Inf. ES220/17, 49 or.
- Aranzadi Z. E. (): *Catálogo espeleológico de Gipuzkoa*.
- Galán, C. (1992): *Estudio hidrogeológico de los macizos kársticos Izarraitz y Arno*. (Gipuzkoa, País Vasco)
- EEE (1996): *Euskal Autonomia Erkidegoko mapa hidrogeologikoa, 1:100.000 eskalako*.